

Urtarrila Otsaila Martxoa



ONTZIAK

200_{Kg}

BIRZIKLATZEA

Urteko lehenengo hiru hilekoan 200 kg ontzi bildu dira, 2017ko lehenengo hiru hilekoan baino 138 kg gutxiago.



PAPERA

79.000_{orri}

KONTSUMOA

Udaberriko oporren geldialdiarekin tartean, aurreko urtearekin alderatuz, 26.000 orri gutxiago kontsumitu dira urtearen lehenengo hiru hilabeteetan. Aurreko urtean 105.000 orri erabili ziren.

2.280_{kg}

BIRZIKLATZEA

Aurreko urteko lehen hiru hilekoan baino 190 kg gutxiago jaso dira edukiontzi urdinetan.

BA AL ZENEKIEN?

Aurreko martxoaren 24an, orduaren aldaketa izan zen egun berean, Planetaren Ordua ospatu zen 20:30etik 21:30era.

Planetaren Ordua itzalaldi elektriko bat gertatzea helburu duen ekimena da. Hau da, etxe eta enpresei ordubetez argiak eta beste tresna elektriko batzuk itzaltzeko eskatzen zaie. Ekimen horren bitartez gizartea kontzientziatu nahi da klima aldaketaren kontra, energia aurreztu eta argi kutsadura gutxitzeko neurriak hartzeko.




Egun, **Planetaren Ordua** dugu klima aldaketaren aurka mobilizatu eta borrokatzeko kanpaina global handiena. **World Wide Fund for Nature (WWF)** gobernuz kanpoko erakundeak antolaturik, ekimen hau Sidneyn sortu zen.

Aurretik 10 edizio ospatu ostean, 2018koak era hainbat marka hautsi ditu deialdiak: milioika herritarrekin bateari, 188 herrialdetako 18.000 monumentutik gora, eta milaka enpresa eta erakunde publiko zein pribatuk parte hartu zuten Planetaren deialdian.

ETA... ZER EGIN DEZAKET NIK?

Argiztapena



01.

Balia zaitetz eguneko argiaz. Soilik beharrezko argiak piztu.



02.

Amata itzazu argiak ikasgeletatik eta aretoetatik ateratzean, ondoren erabiltzeko asmorik izan ezean. Salbuespena: gelara 15 edo 20 minutu baino lehenago itzultzeko asmorik izanez gero, hobe da argiak piztuta uztea.



03.

Eseri zaitetzte multzoka eta ikasgelaren aurrealdetik hasita (eta ez ausazko kokapen sakabanatu batean). Ohitura xume horren bidez zenbaitetan ez da beharrezkoa izango ikasgelaren atzealdeko argiak piztea.

AKTIBATU+

Ingurumenaren arloko iraunkortasunaren alde herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiak Aktibatu + ekimena jarri du abian. Besteak beste, Etxebizitzetako programa dago Aktibatu+ barruan: ohituren aldaketa parte hartzen duten udalerrietako etxebizitzetara zabaldu nahi da, familiei euren ingurumen-eragina murriz dezaten laguntza eskaintzeko, Internet edukiak komunikatzeko eta banatzeko euskarri legez erabiltzea ahalbidetzen dieten plataforma digital baten bidez.

Helburu hauek lortu nahi dira programaren jardueren bidez:

- Etxebizitzako energiaren kontsumoa % 5 murriztea.
- Etxebizitzako uraren kontsumoa % 5 murriztea.
- Gaikako bilketako edukiontzien erabileran, % 12ko gehikuntza lortzea.
- CO2-ren isuriak % 7 murriztea.



17/18 ikasturte honetan, Etxebizitzetako programa Bilbon garatzen ari da, hortaz, bertan bizi bazara parte hartu dezakezu. [Informazio guztia hemen.](#)

Edukiontzi urdin bat gehiago Fakultatean

Historia Garaikideko sailean papera jasotzeko edukiontzi berria ipini da. Edukiontzi hau, aurretik Fakultatean zeudenei gehitzen zaio. [Dokumentu honetan](#) ikusi daitezke eraikinean dauden edukiontzien kokapena.



Birziklatzeko arrazoi bat

Papera edozein zakarrontzitarra botatzea produktu berriak egiteko materiala galtzea da.

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!.

Hemen proposatutako ideiarekin bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.ekoscan@ehu.es